

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Torres kontseilaria Nafarroako Gurutze Gorriko zuzendaritza-taldearekin bildu da

*Elkarrizketan, Gurutze Gorriaren jarduerak aztertu dituzte, bereziki Nafarroako Gobernuak diruz lagundutakoak edo Nafarroako Gobernuaren kontratu bidez egiten direnak*

Viernes, 05 de agosto de 2011

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria den Elena Torres Miranda Nafarroako Gurutze Gorriko lehendakariarekin, Joaquin Ignacio Mencos Arraizarekin, bildu da gaur. Bileran izan da, baita ere, erakundeko idazkaria den Pedro García Dévora. Kontseilariak Gurutze Gorriko ordezkariarekin egin duen lehen bilera ofiziala izan da, eta, bertan, erakundearen jarduerak



Elena Torres kontseilaria Nafarroako Gurutze Gorriko lehendakariarekin, Joaquin Mencosekin (erdian) eta erakundeko idazkariarekin, Pedro Garciarekin.

aztertu eta errepasatu dituzte, bereziki Nafarroako Gobernuko departamentu horretako Mendekotasunerako Nafarroako Agentziak emandako diru-laguntzekin edo kontratuekin egiten dituztenak.

Nafarroako Gurutze Gorriak, ekitaldi honetan, esate baterako, Nafarroako Gobernuaren ekarpenak jaso ditu, aipatutako Agentziaren bidez, eta ekarpen horiek 83.502 eurokoak izan dira. Gainera, horiei gehitu behar zaie garraio egokitua eta lagundua finantzatzeko ezarritako kontratuaren ordainketa; hots, urteko 424.000 eurokoa.

Ekarpen horietatik, 5.000 euro erabiliko dira duela gutxi sinatutako lankidetzak akordioetan agertzen direnetarako; alegia, zaintzaile ez profesionalen prestakuntza-tailerrak finantzatzeko. Akordio hori sinatu berri dute Mendekotasunerako Nafarroako Agentziako zuzendaria den Ana Concepción Puyo Graciak eta Nafarroako Gurutze Gorriko lehendakariak.

### Zaintzaile ez profesionalen prestakuntza

Akordio hori norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasun-egoeran aurkitzen diren pertsonak artatzeko legeen testuinguruan kokatzen da; zehazki, Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen eta Gizarte Zerbitzuen Zorroaren bidez garatzeko testuinguruan (zorrotan 2008ko ekainaren 17an onartu zuen Gobernuak Foru Dekretuaren bidez). Testuinguru horretan, Nafarroako Gurutze Gorriak, adineko pertsonen

nahiz mendekoei arreta osoa eskaintzeko premia ikusita, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Mendekotasunerako Baliabideen Zentroa sortu zuen egun batean, eta, horri esker, Administrazio publikoak eskaintakoez gain, zerbitzu osagarriak eskaini ahal izan ziren.

Orain sinatutako akordioaren helburua da zaintzaile ez profesionalak prestatzeko proiektua, "Zaintzeko zaindu zaitez" izeneko, abian jartzea. Era berean, mendekotasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen eta horiek zaintzen dituzten pertsona ez profesionalen bizi-kalitatea hobetu nahi da. Horrela, oinarrizko ezagutza batzuk eskainiko zaizkie hobeto zaintzearen. Akordioan aurreikusitako prestakuntza-jardueren bidez, zaintzaileek ezagutza eta estrategia egokienak aplikatzea sustatu nahi da, mendeko pertsonaren autonomia pertsonalari eta inguruneke erlazioei eusteko eta horiek hobetzeko. Horiez gain, akordioan aurreikusitako jarduerak aukera emango dute zaintzaile horien egoera animikoa eta fisikoa nahiz norbere zaintza hobetzeko, arriskuak prebenitzeko prestakuntzaren bidez, eta taldean laguntza emozionala erraztera bideratutako ekintzak garatuta (lankideak eta profesionalak).

Aurreikusitako jarduera zehatzen artean, ondorengoak aurkitzen dira: oinarrizko ikastaro presentzialak, *on line* bidezko oinarrizko ikastaroa, ikastaro monografikoak, jardunaldiak eta hitzaldiak eta gela mugikorra.

### **Gainerako ekarpenak**

83.502 euroko ekarpenean, tailerrak finantzatzera zuzendutari 5.000 euroz gain, ondorengo ekarpenak sartzen dira: 40.000 euro Baliabideen Zentroa finantzatzeko lankidetzak-akordioarenak; 32.000 euro garraio egokitu eta lagundurako ibilgailuak finantzatzeko; 4.063,61 euro estimulazio eta mantentze kognitiborako Gelaren programarako (Etengabeko Memoria Gela), adineko pertsonentzat; eta gainerako 2.438,99 euro boluntariotzako programak garatzeko emandako diru-laguntzarenak.